

### 3 GABONAK

#### Eguberrietako haur parkea zabalduko dute bihartik aurrera

Udalak Eguberrietako Haur Parkea jarri du aurten ere Gabonetako opor egunetan haur eta gaztetxoek herrian zeregina izan dezaten. Bihar zabalduko ditu ateak, goizeko hamaiketan, eta 31ra bitartean izango dute herritarrek honetan gozatzeko aukera. ASIDEL herriko langabetuen plataformak kudeatuko ditu parkeko sarrera eta taberna.

### 5 ALDUNDIA

#### Martin Garitano Ahaldun Nagusiak herria bisitatu du

Lasarte-Oriako herritarrek eta eragileek dituzten kezkek, arazoak eta proiektuak ezagutzera etorri zen atzo gurera Martin Garitano Gipuzkoako Ahaldun Nagusia. Goizean udal ordezkari eta langileekin bilera egin, eguerdian KOO-Peratzen egitasmoa gertutik ezagutu eta bazkalostean Aterpea, Islada Ezkutatuak, Banaiz Bagara, kirol elkarte eta Gaztelekuko kideekin bildu zen. Herritarrek ere zuzenean Garitanorekin hitz egiteko aukera izan zuten, iluntzean Udalbatzarrean egindako bilera irekian.



## Jostailu hezkideen dekalogoia

Sexuen arteko bizikidetzarako emakume zentroan landu dute diptikoa

Merkatuak eskaintzen dituen jostailuak modu kritiko eta koherentean aztertzeko, "jostailu hezkidetzalea ez sexista, ezta belikoa ere" tailerra antolatu zuten ikasturte hasieran. Bertan partehartzaren aritu diren emakumeen ekarpenekin osatu da diptikoa eta orain, etxez etxe banatuko da. Jolas eta jostailuen aukeraketarako erabilgarria izan dadin nahi du Udalak.



railean hasi zen tailerrak eman du fruitua. Asteazkenean aurkeztu zuten jostailu hezkideen dekalogoia eta Maria Salsamendi Sexuen Arteko Bizikidetzarako Emakume Zentroko teknikariak azaldu zuen lau fasetan osatu dutela.

Lehenik eta behin, azterketa orokorra egin zuten merkatuan zer jostailu eskaintzen diren aztertzeko. Gero, ikusitakoa zalantzan jarri eta izan beharko lituzketen balioak zein ziren analizatu zuten. Ondoren, beste lekuean egindako praktikak ikusi eta haietatik ideiak bildu zituzten. Azkenik, guztien artean herritarrei zer eta nola eskaini adostu zuten.

"Helburua jostailuak erosteko garaian familia osoari, heldu eta gaztetxoei aholkuak eskaintzea da", adierazi du Salsamendik

Lanketa horretan aritu dira Pili Bermejo, Ainhoa Mendiluze, Nerea Arteaga, Jaione Olasagasti, Irati Perez eta Ainara Altuna marrazkien diseinatzailea.

#### Irudiz hornituta

Ainara Altunak azaldu du marrazki bakoitzaren atzean lanketa handia dagoela eta dekalogoan azaltzen den esaldiaren gainean marraztea izan dela bere egitekoa: "Marrazkia osatzeko prozesua zirriborroarekin hasten da, arkatzez margotzen dut lehen marrazkia. Ondoren, akuarelaz pintatzen dut kolorea ondo hartu eta lantzeko errazagoa delako. Eskaneatu eta azkenik trataera digitala ematen diet".

Prozesu hori marrazki bakoitzarekin egin behar izan du Altunak, oinarritzat lantaldeak adostutako esaldi edo aholkua hartuta.

Marrazkiak koloretsuak dira, handiak eta politak, gurasoen atentzioaz gain, umeena euren ere erakarri eta esaldiak dakarren balio positibo eta hezkidetzalearekin identifikatuta senti daitezten.

"Izan ere, horixe izan da gure helburu nagusietako bat, estereotipoak haustea eta merkatuan alternatibak egon



Asteazkenean aurkeztu zen diptikoa etxez etxe banatuko da.

badaudela ikustaraztea", esan du Maria Salsamendi teknikariak, "ez du zertan denak erakusten diguten bezalakoa izan behar".

Tailerraren esperientzia bera positibotzat jo du Salsamendik eta prozesu "politik eta aberasgarria" izan dela aitortu du: "Honaino ailegatu bagara, dekalogoia lantzen aritu diren emakumeei esker izan da. Lan handia egin dute guztiek eta benetan eskertuta gaude".

#### Etxez etxeko banaketa

Gorka Lizarraga Gizarte Zerbitzueta zinegotziak azaldu du diptikoa etxez etxe banatuko dela datozen egunetan: "Lasarte-Orian 7.000 etxe badaude ere, 9.000 ale egin ditugu eta diptikoak datarik ez duenez, etorkizunean ere erabilgarria izan daiteke dekalogoia, lan oso fina egin dela uste dugu".

Diptikoa bi hizkuntzetan egin dago eta etxe bakoitzera ale bat iritsiko da.

**leima**  
Antenas S.L.

**ANTENA KOLEKTIBO eta INSTALAZIOA, MANTENUA eta KONPONKETA**

**Zatoz eta galdetu !**

**Hipodromo 6 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 247034**  
**leimalasarte@euskalnet.net**

**ZURE KOMUNITATEA, DIVIDENDU DIGITALERA EGOKITZEN DUGU!**

Neure kabuz



**Unai Muñoa**  
Garrantzi bila

Garrantzi gehiegi ematen diot nire buruari. Haur jaio berri batek bere ama adina behar dut nor sentitu. Nire egoak behar du jakin eguzkipean zein hutsune betetzen duen, eta behar du jakin zein garrantzitsua den bere existentzia. Horretan daramat bizitza osoa, nire buruari garrantzia eman nahian.

Txintxarriko idazten ditudan artikulu hauek izan daitezke horren adibide. Beti plazari begira, beti plazari saltzen. Eta zer saldu? Erosteke prest zaudeten oro, baldin eta nire egoari jaten ematen badio. Zergatik ote naiz bertsolari, edo saiatu naiz izaten? Zertarako? Norbere buruari begira jartzen garenean, eta epaiketarik gabe, gure izatearen erradiografia bat egiteko kapaz garenean, bide berriak zabaltzen dira, eta zenbait korapilo askatu.

Pertsonalitatea da nolabait definitzen gaituena, besteen begietara, behinik behin. Baina aldi berean, gure izatea mugatzen duena ere bada, sinetsi egiten baitugu hori bakarrik garelara, eta noski, askoz gehiago gara. "¿Quién soy yo? Yo y mis circunstancias". Ezaguna egingo zaitzue, ezta? Pertsonalitatea, ni-a baino gehiago, zirkunstantziak dira. Bizipenen arabera kareta soziala, gizartea den oihanean bizirauteko ezinbestekoa izan zaitzuna, baina norbere garapenean kateak jartzen dizkiona ere bai.

Merezi du norberaren mekanika ezagutzeak. Merezi du alde ilunak argitaratzeak, horiek onartzea baita geure burua onartzeko lehen pausoa. Argia eta itzala. Biak gara, eta gure osotasunean maiteko gaituzte, garen bezala agertzen bagara.

Ez daukat ezer ezkutatzeko. Agian esan dudana guztia nire harrikada bat baino ez da, eta interesante itxura eman nahian nabil, baliteke. Baina, berdin-berdin maiteko nauzu, ezta?

Zorion agurrak



Arkaitz

Zorionak, zure urtebetzean. Oso ondo pasa! Amatxo eta osaba Rafaelen partetik.




Judith

Zorionak printzesa, zure 9. urtebetetzean. Aita eta amaren partetik.



Maite

Zorionak senarraren eta semearen partetik!



Karlos

Zorionak Karlos! Ondo pasa ezazu Santo Tomas eguna maite zaituztenez ingurata. Kuadrillakoak.



Alex

Zorionak Alex kuadrillako guztien partetik! Hurrengo erronda zure kontu. Ez da inozentada bat!



Nerea

Zorionak bihotza. Bost muxu haundi familiaren partetik. Ondo pasa!!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, [txintxarri@txintxarri.info](mailto:txintxarri@txintxarri.info) edo [txintxarri.eus](http://txintxarri.eus) web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Salerosketak

- 75m2ko etxea alokatzen da Sasoetan. Hegoaldera ematen du eta hiru gela eta bi komun ditu. 605 77 04 36
- Garajea saltzen dut Antxuenea Enparantza 5ean. 600 414 331
- Garaje marra alokatzen dut Urbarten. Merke. 648 61 47 69.
- Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailua etxe osoan. Telefonoa: 649 52 67 66
- Garaje bat alokatzen da Super BMko parkean. 648 20 08 11.
- Umeentzako kotxe kapota Jane Slalom Bainera bat eta Mendira joateko motxila 637 05 63 54
- Etxea alokatzen dut San Martzial kalean, Tximistarreta parean. Prezioa negoziatzeko. 677 86 36 42
- Honda Accord markako auto bat saltzen dut. 5 ate ditu, gasolina, aire girotua ere bai. 63.000 kilometro, egoera onean. Prezioa: 1600 euro. 696 50 67 39.
- Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailua etxe osoan. Telefonoa: 649 52 67 66
- Estreinatuta gabeko ASPES markako bitrozeramika eta labea ditut salgai, 275 eurotan. [sukaldeasalgai@hotmail.com](mailto:sukaldeasalgai@hotmail.com)

Lan-eskaria

- Pertsona nagusiak zaintzen, etxean edo kanpoan lan egiteko prest. Badauzkat paperak. 674 59 80 99.
- Pertsona arduratsua eskaitzen da lan egiteko. Esperientzia zabala adinekoen eta gaixoen zainketan. Hasteko prest 680 98 35 27
- Edadekoak zaintzeko prest eguneko 24 orduetan. Paperak eta esperientzia. 645 78 72 72.
- Emakumea lanerako prest. Esperientzia fruita-dendan, pintaketetan, nagusiak zaintzen, nekazaritzan. 609 34 44 28
- Adinduk, umeak edota garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edota interna moduan. Esperientzia eta erreferentziak. 662 27 71 36
- Interna edo externa moduan garbiketa edota zaintza lanak egiteko prest. 639 41 22 33
- Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko astean zehar, jai egun eta asteburuetan... edozertarako prest. Orduka lan egiteko prest ere. 943 40 40 15 / 606 66 10 48

Lan-eskaintza

- Urtarrietik maiatza arte Urdaira sagardotegian sukaldarako edo zerbitzari lanetako emakumezko edo gizonezkoak behar dira. 619 40 36 91

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Marko Gonzalez Alonso abenduaren 11ean.
- Aiur Elizagarate Ugartemendia abenduaren 8an.
- Lucia Lucero Iñigo abenduaren 9an.



Heriotzak

- Tomas Eguileta Martinez abenduaren 16an, 84 urte zituela.
- Alicia Garcia Landa abenduaren 13an, 94 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

<b>Ostirala, 19</b> Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
<b>Larunbata, 20</b> Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9	943 019521
<b>Igandea, 21</b> Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9	943 019521
<b>Astelehena, 22</b> Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
<b>Asteartea, 23</b> Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
<b>Asteazkena, 24</b> Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
<b>Osteguna, 25</b> Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
<b>Ostirala, 26</b> De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
<b>Larunbata, 27</b> Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
<b>Igandea, 28</b> Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
<b>Astelehena, 29</b> Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
<b>Asteartea, 30</b> Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
<b>Asteazkena, 31</b> Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774

**GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero**  
Aizpuru, Latxunbe Berri 11,  
Hernani, Tel.: 943 336 077

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 376055
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAIA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



GFako Kultura eta  
Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
**943 366 858/943 371 448**  
G-20407557  
**Legezko gordailua:**  
SS513/93  
ISSN: 1134-0053  
**Inprimategia**  
Zeroa Multimedia, S.A.  
**Aleak zenbakiko:** 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maider Azurmendi, Iñigo Gonzalez, Jon Altuna E.  
**txintxarri@txintxarri.info**  
**Publizitatea eta administrazioa:**  
Arantza Artola  
**publizitatea@ttakun.com**  
**administrazioa@ttakun.com**  
**Laguntzaileak:**  
Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Jexux Artetxe, Pako Aizpitarte, Edu Galardi  
**Informatikoa:**  
Xabier Amadoz

## AISIA

# Eguberrietako haur parkea bihartik zabalik

Bihar hasi eta 31 bitartean izango da Michelinen



Adinka gune eta joko ezberdinak daude Eguberrietako Haur Parkean.

**Udalak Eguberrietako Haur Parkea jarri du aurten ere Gabonetako opor egunetan haur eta gaztetxoek herrian zeregina izan dezaten. Bihar zabalduko ditu ateak eta 31ra bitartean izango dute herritarrek honetan gozatzeko aukera. Udalak azken urteetan egin bezala, deialdi publikoa egin zuen bertako sarrera eta taberna kudeatzeko eta honetan ere ASIDEL herriko langabetuen plataformak kudeatuko du.**

## TXINTXARRI

**E**guberrietako parkea jarri du Udalak Michelingo kirolgunean aurten ere Gabonetako opor egunetan. Bihar, larunbata, zabalduko ditu ateak 11:00etan eta abenduaren 31a bitartean aukera izango da bertatik pasatzeko.

Parkearen ordutegia 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara izango da. Haurrek sarrera doan izango dute baina helduek euro bat

ordaindu beharko dute bertara sartu ahal izateko.

Parkean adinaren arabera gune ezberdinak antolatu dira.

Michelingo frontoia 0-11 urte artekoentzat izango da. Honetan puzgarriak, jokoak eta eskulanak egiteko aukera izango da besteak beste.

Tenis karpan, 12 eta 14 urte arteko gaztetxoentzako gunea kokatu da. Honetan beste mota bateko jokoak jarri dituzte, mugimenduko puzgarriak, Wii bideo jokoak, rokodromoa eta

zezen mekanikoa baste batzuen artean.

Azkenik, Mercero plazan parkearen hirugarren gunea jarriko da. Familia guztiari zuzendutako jolasak aurkitu ahal izango dira honetan.

Ekitaldi bereziak ere egingo dira parkean ohi bezala. Ikusizunak 19:00etan izango dira abenduaren 22an "Txondatxondai bibentsio eta jai"; 27an "Patata tropikala"; 30ean Koko ipuin kontalaria eta 31ean parkearen itxiera jaia joku eta opariek.

**Sarrera eta taberna**

Parkearen baitan jartzen den taberna eta sarrera kudeatzeko deialdi publikoa egin zuen udalak eta aurten hirugarrenez, ASIDEL herriko langabetuen plataformako kideen ardura izango dira.

## Sorturen elkarretaratzea Okendon

**E**spainiako Auzitegi Gorenak Eosoko bilkura egin zuen asteartean 56 euskal preso politikoren zigorraren luzapenez erabaki eta estatutik kanpo betetako penak konputatu ala ez erabakitzeko. Ez zuen halakorik egin eta urtarilaren 13ra atzeratu du erabakia.

Sortuk adierazitakoaren arabera, Auzitegi Gorenak erabaki behar du "ingeniaritza juridikoa erabiltzen ote duten presoek bidegabeki zigorra luzatzeko, edo ez; Parot Doktrinarekin gertatu bezala".

Zentzu horretan, Sortuk Alderdi Popularraren jarrera salatu du: "PPren gobernua presoak sortu du egoera hau. PPren gobernua prest dago Europatik datozen



"Espetxe politika kriminalari Stop. Presoak etxera" lelopean bildu ziren hainbat herritar.

arauak zein Espainiako legegia bera urratzeko euskal preso politikoei ezartzen dien salbuespeneko espetxe politikari eutsi ahal izateko".

Beraz, Sorturen ustetan, espetxe politika "kriminala" bakearen kontrako tresna moduan erabiltzen du PPK eta

euskal preso politikoen eskubideen aldeko borroka "indartzeko" deia egin die herritar guztiei: "Bakearen eta konponbidearen alde jardutea delako eta bake agertoki bat ezingo delako finkatu preso bakar bat espetxean dagoen bitartean".

## GIZARTEA

## Arranbide-Oztarango bizilagunen bilera

Bihar abenduaren 20a larunbata, 11:00etan Oztanbideko lokalean bilera egingo da Arranbide eta Oztaraneko bizilagunentzat. Bileran Hiribusaren gaia eta eskariak eta galderak egiteko tarte zabalduko da. Auzo elkartetik bilerara gerturatzeko gonbitea luzatu nahi diete auzotarrei.

## JAIA

## Azken eguna marrazki lehiaketan parte hartzeko

Iaz bezala marrazki lehiaketa antolatu du Megabak. Irabazleen artean bat hautatuko da kabalgata iragarriko duen kartela osatzeko. Marrazketa lehiaketan parte hartzeko azken eguna gaur, abenduaren 19a da eta marrazkia Manuel Lekuonan jarri den postontzi berezian utzi behar da. Oinarriak Megaba.es webgunean.

## UDALA

## Somoto ez ohiko udalbatzarreko gaia

Ez ohiko udalbatzara burutuko da gaur 11:30ean. Gai zerrendan, hiru puntu eztabaidatu beharko dituzte alderdiek. Lehenengo, alkateari baimena eman beharko dio udalbatzarrak Lasarte-Oriako udalak Nikaraguako Somoto hiriko hainbat erakunde eta herritarri emandako laguntza ekonomikoak edo dirulaguntzak medio izandako jokabideak salatzeko abokatu eta prokuradoreak izendatzeko edota beharrezkoak diren neurriak hartzeko. Bigarren gaia, 'Euskara sustatzeko ekintza plana Lasarte-Orian 2014-2017' onestea izango da. Azkenik, kaleak garbitzeko eta besteak beste hiri hondakin solidoak biltzeko kontratuaren iraupena luzatzeari onespina eman beharko diote alderdiek.

## UDALA

## 'Ondo ibili' egitasmoa baloratzeko bilera Biyak Bat nagusien egoitzan

Iraileko azken ostiralean hasi ziren herrian zehar ibilaldiak egiten 'Ondo ibili' egitasmokoak, adineko pertsonak aktiboak izateko eta ohitura osasungarriak sustatzeko helburuarekin. Eguraldi ona nahiz txarra egin, ostiralero-ostiralero bildu dira adineko pertsonak herrian zehar paseotxoak emateko, boluntario talde baten eta herriko zenbait elkartero kideren laguntzarekin. Okendo plazan bildu dira hilabeteotan, goizeko hamaiketan. Asteazken goizeko hamaiketan bilera egin zuten Biyak Bat nagusien egoitzan, hilabeteotan herrian zehar egindako ibilaldi guzti horiek baloratzeko eta egingakoa aztertzeko.



## Tutore eta saretuen aurkezpena



**B**ihar, abenduak 20, 12etatik aurrera Okendo plazan lehenengo Tutore eta Saretuen aurkezpena egingo du herriko Gure Esku Dago lantaldeak.

"Larunbat honetan, Saretze ibilbidea eraikiko dugu. Bertan, Saretu direnek sarea

jasoko dute. Eta oraindik Saretu ez direnek saretu eta martxan jartzeko aukera izango dute".

Gure Esku Dago ekimenez, herritarrek animatzen dituzte parte hartzera: "Sartu zaitetz Saretze Ibilbidean ez zara, ez, damutuko eta!"

# Martin Garitano Ahaldun Nagusia Lasarte-Orian

## Herriko elkarte eta eragileekin bildu zen atzo eta bilera irekia egin zuen Udaletxean

*Lasarte-Oriako herritarrek eta eragileek dituzten kezka, arazoak eta proiektuak gertutik ezagutzeko etorri zen atzo gurea Martin Garitano Gipuzkoako Ahaldun Nagusia. "Herritarrek herrira" izeneko ekimenaren baitan, egun osoa igaro zuen herrian. Goizean udal ordezkari eta langileekin bilera egin, eguerdian KOOPeratzeko egitasmoa gertutik ezagutu eta bazkalostean Aterpea, Islada Ezkutatuak, Banaiz Bagara eta kirol elkarteetako kideekin bildu zen Gaztelekua bisitatu aurretik. Herritarrek ere Garitanorekin hitz egiteko aukera izan zuten, iluntzean Udalbatzarrean egindako bilera irekian.*

TXINTXARRI

Goizeko 11:00etan iritsi zen Martin Garitano. Pablo Barrio alkateak harrera egin zion Udaletxe atarian eta segidan, udal ordezkari eta langileekin hitz egin zuen. Handik KOOPeratzeko trebakuntza zentrora joan zen 17 enpresa kooperatibo sortzeko formakuntza ikastaroa nola osatu duten ezagutzera.

Arratsaldean, Aterpea Merkatarien Elkartearekin bildu ziren foru ordezkariak eta krisiak, merkataritza-gune handiek eta kontsumo ohituraren aldaketek merkataritza txikiei sortu dizkien kezka entzun zituen Garitanok.

Islada Ezkutatuak taldeak herrian memoria historikoa berreskuratzeko egin duen lana erakutsi zion Ahaldun Nagusiari eta kirol elkarteetako kideek euren kezka helarazi zizkieten.

### Migranteen Eguna

Atzokoa Migranteen eta euren familien Nazioarteko eguna izanik, Martin Garitanok 70 nazionalitate dituen Lasarte-Oria erreferentzia dela aitortu zuen: "Lasarte-Oriaren kasua

eredugarria da. Kultura ezberdineko jendearen artean zubiak eraikitzen ari dira eta jakina, Aldunditik ekarpenak egiten jarraituko dugu orain arte bezala", adierazi zuen.

"Euskal Herrian bizi garen guztiok euskal herritarrek gara, gure sorlekua edozein dela ere", esanez jarraitu zuen eta azkenaldian entzuten diren iruzur eta delituekin lotutako "diskurtso arrazista arriskutsuekin" amaitu beharra dagoela azpimarratu zuten Barriok eta Garitanok Banaiz Bagarakoekin bildu aurretik.

Langabezia ere izan zuten hizpide. "Garbi daukagu, arlo sozioekonomikoa da herritarrek gehien kezkatzen dituen. Aterpea eta KOOPeratzenera eginiko bisitak zentzu horretan burututakoak dira. Egoera ekonomikoak guztiok eragiten digu, eta ez du zentzu handiegirik norbera bere kabuz aritzeak, sinergia eta laguntza garaia dira", adierazi zuten.

Zentzu horretan, etorkizunerako urratsak "eskualde mailan" eman behar direla esan zuen Barriok: "Horretan gabilta, ea Garapen Agentziak aurrera egiterik duen bizi dugun egoera zaila iraultzeko".



"Bisita honekin beste Lasarte-Oria bat deskubritu dut, dinamikoa, bizia", adierazi zuen Martin Garitanok bilera irekian. Herritarrek hitza hartu eta euren kezka eta galderak helarazi zizkieten Gipuzkoako Ahaldun Nagusiari.



Ezkerrean Barrio eta Garitano KOOPeratzeko zentrora egindako bisitan eta eskuinean Aterpekoekin bildu den unea.



Herriko ikastetxeetako gaztetxoak bisitatu ditu aste honetan Xixuko ahateak.

## Xixukoren bisita herriko bi ikastetxeei

Aste honetan zehar herriko ikastetxeak bisitatu ditu Xixuko ahateak. Urtero bezala ahatea ikusteko irrikitan zeuden ikasleak, eta harrera bero eta goxoa egin zioten ahate maitagarriari.

Abenduaren 24 arratsaldean iritsiko da Olentzero herrira. Okendo plazan egongo da herriko hurrekin; horregatik, ezinbestekoa da dotore dotore jartzea plaza, ikazkinari eta bere lagunei behar den bezalako harrera egiteko.

Helburu horrekin egin dituzte hainbat marrazki polit herriko ikastetxeetako gaztetxoek.

Xixukok aste honetan zehar jaso ditu ikasleen marrazkiak eta txundituta geratu da, koloretuak eta politak izan baitira

denak. Datorren asteazkenarako Okendon jarri behar dira, plaza dotore eta apain egon dadin, menditik jaitsiko den ikazkinari eta bere lagunei harrera egiteko. Trukean, Xixukok eskutitz berezi bat eman zien ikasleei: Olentzerok berak idatzitako gutun bat.

Ikasleek pozarren jaso zituzten Xixukoren bisitak eta Olentzeroren eskutitza. 24ean izango dute aukera ikazkina eta lagunak gertutik ikusi eta ezagutzeko, eta baita nahi dituzten opariak eskatzeko ere.

### Santo Tomas ikastetxeetan

Abenduaren 21a (igandea aurtentzen) da berez Santo Tomas eguna baina herriko ikastetxeek gaur ospatuko dute jaia. Txistorra, haurrak baserriarrez

jantzita... Santo Tomas giroa ikastetxeetan.

Sasoeta-Zumaburun txistorra dastatuko dute ikasleek; baserriarrez jantzita joango dira. Gaurkoa aurtengo azken eguna denez ikastetxean, ikasleek lehen ebaluazioko notak jasoko dituzte, eta irakasle eta ikastetxeetako langileak agurtuko dituzte 2015eko urtarrila hasierara arte. Merezitako oporrak hartuko dituzte denek.

Landaberrin ere antzekoa izango da giroa: txistorra otartekoak, gaztetxoak baserriar jantziekin, Gabonetako oporrak datozelako alaitasuna eta poza...

Bien bitartean, jaialditxo ospatuko dute Landaberri-Garaikoetxeako umeek gaur arratsaldean.

# Talo ikastaroa Xirimiri Elkarteak

Santo Tomas eguna prestatzeko, ikastaroa egin zuten 80 herritarrek talogileen aginduetara

Etzi egingo da Santo Tomas Feria Okendo plazan. Base-rritar jantziak, txerria, musika, bertsolariak, sagardoa... Baina abenduaren 21a berezi egiten duen jaki bat bada-go, hori taloa izaten da. Txistorrarekin jatea da ohikoa, nahiz eta txokolatearekin edota hutsik jaten duenik ere baden. Antzinako tradizioa belaunaldiz belaunaldi transmititzeko eta ohitura zaharrak galdu ez daitezen, Ttakun Kultur Elkarteak ikastaroa antolatu zuen astelehenean Xirimirin. Adin guztietako jendea hurbildu zen talogile finen aholkuak entzun eta ikastera.

## TXINTXARRI

**M**ari Angeles Iburguren, Pepi Arsuaga, Marijo Eizmendi, Begoña Aranzadi eta Joxepi Garmendia talogileek bitzita osoa daramate talogintzan. Ondare hori galdu ez dadin, txikitxoenei erakusten aritu ziren bost talogileak astelehenean Xirimirin.

Mahaiak irinez beteta eta gaztetxoak masa gogor kolpatzen ikusi genituen, amaieran langileentzako saria eskuratzeko. Nahi adina talo egin zituzten herritarrek eta etxera sorta ederrarekin joan ziren guraso, aiton-amon edota osaba-izebentzat eurek egindako taloak hartuta.

Banaiz Bagarako lagunak eta Solaskideak ere izan ziren taloak egiten, gauza berriak ikasteaz gain, talogile eta herritar euskaldun zaharrek euskara praktikatzeko.

## Santo Tomas

Gain-gainean daukagu Gabonei hasiera emango dien Santo Tomas feria eta urtero bezala, aurten ere ez da talorik faltako. Igandean erabiliko duten materiala probatu zuten astelehenean Xirimirin eta dena puntuan dute Okendo plazan postua jartzeko.

Denera 30 kilo irin, dozenaka ur litro eta 30 kilo txistor. Gazta eta txokolaterik ere izango da plazan. Iaz ia dena agortu zen, lasarteoriatarrek taloa oso gustuko dute eta.

Igandean lan asko izango dute talogileek eta baita laguntzen arituko diren Solaskideek ere. Batzuek festa egin dezaten, gutxi batzuk jo eta su arituko dira lanean.

Eta gogoratu, talo ona mehea eta txapa gainean jartzean harrotu egiten dena da. Ziur halako asko egingo dituztela igandean talogileek Okendo plazan.



Belaunaldi guztietako herritarrak bildu ziren Xirimiri Elkarteak taloak nola egin ikasteko.

## EZ ZAITEZ LARANJA ERDIAREKIN KONFORMATU



**Gipuzkoako komertzio txikia.  
Buruak eta bihotzak bat egiten duten lekua.**



Kolpeka gaztetxoek, eta palan talogile trebatuak.

## LABURRAK.-

## Ostadarren Euskal Ligako kadeteen eta Ohorezko erregionalen bigarren garaipena

Hil ala bizikoa zen bi taldeentzat ligako 14. jardunaldia. Erregionalak 2-4 nagusitu ziren Antzuolan, eta urrezko hiru puntu erdietsi zituzten. 10 puntu dituzte orain, eta jaitsiera postuetan jarraituko duten arren, etorkizunera begira indarra hartu dute Mikel Medina eta Gabi Sanchezen mutilek.

Sistema berri batekin egin zion aurre Antzuolari Ostadarrek: 4-2-2-2. Eta ezin hobeto atera zitzaion jokaldia lehen zatian, Antzuola erantzunik gabe utzi eta 0-3ko markagailuarekin joan baitzen atsedenaldira. Goleatzaileak, Gorka Brit (3 guztira, 2 lehen zatian) eta Eric Utiel, denboraldiko lehen gola eskuratu. "Ongi atera zaigu sistema aldaketa, eta jaun eta jabe izan gara lehen 45 minutuetan. Antzuolak ez du jakin egoerari erantzuna ematen, eta alde polit batekin (0-3) joan gara atsedenaldira", adierazi zuen Mikel Medina entrenatzaileak.

Badirudi erregionalak eta kadeteak ados jarri direla denboraldi honetan: bata irabazten duenean besteak ere bai. Lehen jardunaldian irabazi zuten, eta 14.era arte ezin izan dute bigarren garaipena lortu.

Meritu handiko hiru puntu zakuratu zituen Joxan Beldarrainen taldeak, 1-0 irabaziz Eibar ahaltuari. Erregionalekin gertatu bezala, indarra eta kemena hartuko dute kadeteek datozen jardunaldietara begira, maila mantentzeko lehia horretan.

Gainontzean, beste emaitza hauek utzi ditu asteburuak Ostadar SKTren taldeentzat: Ostadar SKT 7-0 Hernani (Jubenilen Ohorezko Maila); Ostadar SKT 9-1 Herrerako Sporting (Jubenil 1go maila); Ostadar SKT 4-1 Sance 'B' (Kadeteen 1go maila); Real Sociedad 7-0 Ostadar SKT (Infantilen Ohorezko Maila) eta Eibar 1-0 Ostadar SKT (Infantil txiki). Emakumezko erregionalek atsedena zuten jardunaldi honetan.

## Ohorezko B mailako lidergoa sendotzeko, Zarautz-Beltzak 35 - Uribealdea 19

Asteburua joan eta asteburua etorri, Zarautz-Beltzak taldeak berri onak besterik ez ditu ematen. Uribealdea garaitu zuten 12. jardunaldian, nahiz eta lehen zatian bereziki asko sufritu behar izan zuten. Partida hasi eta minutu gutxira Plentziako mutilek entse-



gua lortu zuten. Atsedendian markagailua kontrari zuten Astin 6-16ko emaitzarekin eta zaleak urduritzen ere hasiak ziren, Uribealdea baita aurten Beltzak Ohorezko B mailan menderatu duen talde bakarra.

Hala ere, bolada gozoan daude herriko eta Zarauzko mutilak. Eta haizeak alde jotzen duenean, guztia egiten da errazago. Zigor kolpe eta entsegu bat lortu zituzten bi minutu eskasetan. Ez hori bakarrik, zigor entsegu bat ere adierazi zioten Uribealdeari eta horrek markagailua 35-19an finkatu zuen.

Unai Urruzolak eta Xabier Rekondok lan handia egin zuten melean, David Vegak hegalean jokatu zuen lehen zatian eta Ander Rekondo azken bost minutuetan zelairatu zen.

Lider doaz Beltzak, Durango puntu bakarrera daukate eta Bera Bera da hirugarren sailkatua, 10 puntu gutxiagorekin.

## IGERIKETA.-

## Euskadiko bi errekor Sabadellen

Iñigo Ibarburuk sub17 markak egin ditu 50 eta 100 tximeletan

**Iñigo Ibarburu, Mikel Esnal eta Itsaso Tolosa Buruntzaldea IKTko igerilariak Sabadell-en izan ziren asteburuan Absolutu Mailako Espainiako Neguko Txapelketan parte-hartzen. Hirurek fin egin zuten igerian, baina bereziki Ibarburuk lortu zituen marka bikainak, bere adineko bi Euskadiko Errekor eginez 50 eta 100 metro tximeleta estiloan.**

## TXINTXARRI

Puntako kirolaria dela berretsi zuen beste behin Iñigo Ibarburu gazteak Espainiako Neguko Txapelketan. Bere prestakuntza hobetu asmoz, goiz eta arratsalde entrenatzen hasi da kiroldegian, eta asteburuan ondo eta pazientziak egindako lanaren fruituak ikusi genituen Sabadellen.

100 metro tximeletan 55"70 egin zuen bere aurreko marka bi segundo jaitsiz; 200 tximeletan 2'05"00, aurrekoa hiru segundotan hobetuz eta 50ean 25"22, aurrekoa ia segundu batean jaitsita. Emaitza horiekin, Ibarburuk 17 urteko 100 tximeletako eta 50 tximeletako Euskadiko Errekorak ezarri ditu, hiru frogetan talde absolutuen errekorak hausteaz gain.

Borja Apeztegia entrenatzaileak "ikusgarria" hitza erabili zuen Ibarbururen jarduna definitzeko: "Juniorren artean artean bigarren izan zen 100 tximeletan, laugarren 200 tximeletan eta bigarren 50 tximeletan. Txapelketa latza".



Iñigo Ibarburu irribarretsu, Katalunian Euskadiko bi errekor erdietsi ostean.

## Tolosa eta Esnal

Itsaso Tolosa gazteak txapelketa bikaina osatu zuen Borja Apeztegia Buruntzaldea IKTko entrenatzailearen ustetan: "Itsaso Tolosa 200 eta 100 bizkar frogetan aritu da. Egia esan, markarik hobetu ez badu ere, bere maila onenean ibili da eta data hauetan horren ondo ibiliko zenik ez genuen espero. Denboraldiko zein momentutan gauden kontuan izanda, balorazio oso positiboa egiten dugu".

Izan ere, 2'22"11ko denbora egin zuen 200 bizkar frogan, bere markatik segundu bat baino gutxiagora gertatuz. 100 bizkar frogan berriz 1'07"08 egin zuen, bere markatik segundu erdira.

Ibarburu eta Tolosaz gain, Mikel Esnal herritarra ere joan zen Sabadellera. Esnalek 50 libre frogan lehiatu zuen. "Oraindik horrelako txapelketetan esperientzia handirik ez eta berriro ere urduritasunarekin pasada txar bat izan zuen. Irteera emateko garaian behar baino lehenago mugitu egin zen (nahiz eta frogarako abantailarik ez zuen atera) eta

arrazoi horregatik deskalifikatua izan zen", adierazi du Borja Apeztegia prestatzaileak. Hala ere, froga burutzeko aukera izan zuen eta baliozkoa ez den arren, marka ona eskuratu zuen 23"96 eginez.

Kanporatua izanaren arantzaxoa zeukan Apeztegiak barruan Espainiako txapelketaren biharamunean: "Irteerako momentuan kontzentrazioa galduko ez balu, agian ehuneneko batzuetan jaitsiko luke denbora. Dena den, deskalifikazioa alde batera utzita, Mikel ere bikain aritu zen bere frogan, bai igeri egiteko moduan baita kontrol taktikoan ere. Denboraldiko momentu honetan inoiz ez da horren azkar ibili, beraz, sentsazio gazi-gozoa geratu bazea ere, bere ahalmeneren inguruan emaitza onak ikusi genituen".

Sabadelleko txapelketa hori amaituta, hirurak Buruntzaldea IKTko gainontzeko taldekideekin batera Zarautzen izango dira asteburuan, Gipuzkoako Klubien Kopan lehiatzen.

## KIROL AGENDA.-

## FUTBOLA

Larunbata 20

**Ipintza, Bergara 10:45ean**  
Bergara - Ostadar SKT  
Infantil Txikiak Errendimendua,  
4. jardunaldia.

**Usabal, Tolosa 12:15ean**

Tolosa - Ostadar SKT  
Infantilen Ohorezko maila,  
12. jardunaldia.

**Matigoxotegi, Donostia 15:30ean**

Kostkas - Ostadar SKT  
Kadete I. maila,  
14. jardunaldia.

**Michelin, 15:30ean**

Ostadar SKT - Real Unión B  
Ohorezko Erregionala,  
15. jardunaldia.

**Igartza, Beasain 12:30ean**

Beasain - Ostadar SKT  
Infantilen Ohorezko maila,  
9. jardunaldia.

**Elorri, Alegia 15:30ean**

Intxurre - Texas Lasartearra  
Jubenil I. maila,  
14. jardunaldia.

**Olaranbe, Gasteiz 16:30ean**

Olarizu - Ostadar SKT

*Kadeteen Euskal Liga,*

*15. jardunaldia.*

**Michelin 17:15ean**

Texas Lasartearra - Gazte Azkuene  
I. Erregionala,  
14. jardunaldia.

**Cesar Benito, Donostia 18:15ean**

Lengokoak - Ostadar SKT  
Jubenilen I. maila,  
14. jardunaldia.

**San Jose Obrero, Irun 19:30ean**

Real Union - Ostadar SKT  
Jubenilen Ohorezko maila,  
13. jardunaldia.

## ARETO-FUTBOLA

Ostirala 19

**Michelingo kirol-gunea, 19:45ean**  
Insausti - Izkiña  
**Michelingo kirol-gunea, 20:45ean**  
Reformas Lagunak - Bar El Punto

Larunbata 20

**Michelingo kirol-gunea, 9:15ean**  
Txindoki - Trumoi  
**Michelingo kirol-gunea, 10:15ean**  
Txoko - Indaux  
**Michelingo kirol-gunea, 11:15ean**  
Urdaneta HK - Ilargi  
**Michelingo kirol-gunea, 12:15ean**  
Bar Buenetxea - Viña del Mar

## ERRUGBIA

Larunbata 20

**Michelin, 11:00etan**  
Zarautz/Beltzak A - Irun  
Sub 14

## ATLETISMOA

Ostirala 19

**Velodromoa, Donostia 18:00etan**  
LOKEko atletak 2014-2015  
denboraldiari ekingo diote pista estalian.

Larunbata 20

**Irun, 16:45ean**  
I. Gabonetako krosa, 5km.  
Super Amara - BAT klubak antolatuta.

## Agenda

Igandea, Okendo plazan 11:00etatik



### Santo Tomas Azoka

Okendon Santo Tomas Azoka egingo du ohi bezala Ttakunek. 11:30ean haurren erromeria, 12:00etan bertsolariak, 12:30ean Xumela, 12:45ean erromeria egingo da eta honetan parte hartuko dute Kukuka, Plaza Dantza, Erketz, Ttiriki Ttarraka eta herriko txistulariak. Hauen ostean, musikarekin jai giroak jarraituko du 16:00ak arte. Haurren talo ikastaroa egingo da azokaren baitan eta Beterriko talogile berezien bisita ere izango da. Txistorra, taloak, gaztainak eta txerria ez dira faltako. Plazan hainbat postu izango dira ere.

### Jaia

LOIDI BARRENETIK

Asteazkena 24, 16:45ean

Lasarte-Oriako haur eta hainbat elkartek harrera beroa egingo diote Olentzero, Mari Domingi, Porrotx eta Xixukori besteak beste.

SAN ROKEN

Asteazkena 31, 10:00etan

Ostadarreko Mendi sailak eta Ttakunek antolatuta urteari amaiera emateko Buruntza mendira igotzen diren lagunentzako jaia antolatu da, erromeria. Txistorra, ardoa eta musika izango dira.

### Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA

Abenduan zehar

El Estudio del Pintor-eko ikasleen margolanak ikusgai.

EMAKUMEEN ZENTROAN

Abenduan zehar

"Ciudadania por la igualdad" elkarrearen eskutik "Emakumeen kontrako indarkeriaren inguruan egiak eta gezurrak" erakusketa dago ikusgai.

### Lasarte-Oria

#### Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 28, 17:00etan

Xepetak Produksioak "Mendizaleak" haur antzerkia izango da euskaraz. Honetan Tomax eta Muxugorri mendira joango dira. 4 urtetik aurrerako umeentzat da lana eta ordubeteko iraupena du. Sarrera 2,70 euro Interneten eta bertan 3 euro.

"Guillaume y los chicos ja la mesa!" filma ikusi ahal izango da Okendo Zinema Taldeak antolatutako zineforum saioaren baitan. Sarrera 4,70 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 27, 20:00etan

"Los Juegos del hambre: sinsajo 1" filma ikusi ahal izango da helduen zinema atalean. Sarrera 5,90 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 28, 19:30ean

"Los Juegos del hambre: sinsajo 1" filma ikusi ahal izango da helduen zinema atalean. Sarrera 5,90 euro.

### Musika

TRUMOI ETA AVENIDA TABERNAK

Larunbata, 20:00etan

Rip taldeari omenaldia egingo diote herriko gazte batzuk emanaldi berezian. 20:00etan Avenidan hasiko dira emanaldiak eta 20:45ean Trumoi jarraituko dute.

ELEBELTZ TOPAGUNEA

Abenduak 26 eta 27, 20:00etatik

II. Fabrimusikala musika jaialdia egingo da Elebeltzen. Julieta La Chula Potra, Gadafiste brothers, Arramazka, Luz de Putas, Kaxianoren alabak, Petti eta Hitzartu taldeak dira orain arte parte hartzea baieztatu dutenak.

### Donostia

#### Musika

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

Abenduak 22, 20:00etan

'Urteagako ahotsak' emanaldian parte hartuko du herriko SuBerri akordeoi taldeak, Donosti Ereski abesbatza eta Koruko Ama Birjinen eskolarekin batera.

### Zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 26, 22:00etan

## Herritarren txokoa

#### Korrikaren materiala

Martxoaren 19tik 29ra egingo da 2015ean Korrika. Urepelen hasi eta Bilbon amaituko da Euskal Herri osoa zeharkatuko duen ibilbidea. Dagoeneko salgai dago materiala herrian, Geltoki Kaleko AEKren Muntteri euskaltegian. Neskentzat eta mutilentzat kamisetak, txanoak, jertseak, buffak eta poloak bertan daudela jakinarazi dute AEK-ko kideek. Herritarrak euskaltegitik pasa daitezke materiala ikusi eta erostera, goiz eta arratsaldeko orduetean.

#### Danok Kideren jaiotza lehiaketa

Danok Kide elkarteak, aurten ere, jaiotzen lehiaketa antolatu du. Hauek dira parte hartzeko oinarriak: jaiotzak gehienez, 80x60 cm-ko neurriak izan behar ditu eta, batez ere, ez da onartuko hondo sendorik ez duen lanik. Aurreko urteetako lehiaketetara aurkeztutako proiekturik ere ez da hartuko.

Jaiotzarekin gutun-azal batean eginen izenak sartu eta azalean parte-hartzaile edota taldearen adina idatzita eman behar da. Jaiotzak aurkezteko egunak abenduaren 19 eta 20a izango dira. Danok Kide elkartearen egoitzan Blas de Lezo kaleko 11 zenbakian utzi beharko dira 18:00etatik 20:00etara. Abenduaren 28an sari banaketa egingo da.

#### Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza izango da Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan hilabetero bezala. Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da abenduaren 23an, arratsaldeko 17:00etan.

#### Lasarte-Usurbil institutuko saria

Lasarte-Usurbil B.H.I Institutuko saskiaren zozketa egin eta zenbaki sariduna 0224 da.


## Sarean

### Xaloe Telebista Iruñerrian martxan jartzeko Crowdfunding kanpaina

Xaloe Telebista Iruñerrian martxan jartzeko kanpaina abiatu zen azaroan. Komunikabideak leih berria irekiko dio euskal kulturari, euskara hutsezko programazioa eskainiz. Euskarazko telebista berriak abenduan hasiko ditu probako emisioak, eta azpiegitura teknikoak martxan jartzeko 50.000 euroko inbertsioa egin behar du.

Hori finantzatzeko, telebistak diru-bilketa edo crowdfunding kanpaina bat abiatu du KARENA plataforma euskalduneari. Besteak beste, Euskaltzaleen Topaguneak, TOKIKOMek eta Udalbiltzak ere bat egin dute kanpainaren helburuekin, euskalgintzako beste hainbat eragilerekin batera. Euskal Herri osora zabalik dagoen kanpainak 40 egunetan 50.000 euro horiek ekarpen txikien bidez biltzeko helburua jarri du.

Crowdfunding kanpainako lotura: <http://karena.eu/proiektua/xaloe-telebista-irunerrian> da.



**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 366858 [txintzarri@txintzarri.info](mailto:txintzarri@txintzarri.info)

# Udal Musika eskolaren eguberri-kontzertua

Gabonetako hainbat kanta eta pieza interpretatu zituzten musika eskolako ikasleek

*Eguberriak astebete lehenago iritsi dira Manuel Lekuona kultur etxera. Eguberrietako kontzertua eskaini zuten asteazken arratsaldean Udal Musika eskolako ikasleek. Hainbat lagun, guraso eta musika-zale gerturatu ziren emanaldia ikustera. Egitarau zabal eta oparoko ikuskizuna izan zen asteazkenekoa, eguberri-kutsuko pieza eta obrekin: Gabonetako kanta ezagunen bilduma, 'Adeste fideles' bezalako pieza klasikoak eta abesbatzaren doinuak, besteak beste.*

TXINTXARRI

Gustukoen dutenarekin egin zieten ongi-etorria Eguberriei Udal Musika Eskolako ikasleek: musikarekin. Urtero egiten duten moduan, oporrak hartu aurretik Eguberrietako kontzertua eskaini zuten musika eskolako ikasleek, asteazken arratsaldean.

Hainbat herritar gerturatu ziren kultur etxera asteazkenean, Udal Musika eskolako ikasleek emandako kontzertuaz gozatzen. Eguberriak izan ziren emanaldiko protagonista; festa egun horiekin lotura eduki zuten ikasleek taularatutako pieza gehienek.

Egitaraua zabal eta oparoa izan zen. Kontzertua Egu-

berrietakoa zela argi uzteko, 'Eguberria popurri' izeneko ikuskizuna eskaini zuten hainbat ikaslek, gabonetako hainbat kanta ezagun abestuz: 'Horra Mari Domingi', 'Hator hator'...

Hortik aurrera, hainbat instrumentu izan ziren protagonista oholta gainean: biolina, gitara eta pianoa, besteak beste. 'Adeste fideles', 'Marcha Radetzky' eta beste hainbat abesti jo zituzten ikasleek.

#### Abesbatzaren txanda

Hainbat herritarrek osatutako abesbatzak ere abestu zituzten hainbat kanta, Sara Rubio pianojolearen eta Lierni Arozena txistulariaren laguntzaz: 'Pavane', 'Adoramus Te',



Udal Musika eskolako ikasleek Gabonetako kanta bilduma batekin eman zioten hasiera asteazkeneko kontzertuari.

'Poza lurrean' eta 'Goazen guztiok'.

Asteazkeneko emanaldi bereziari amaiera emateko, Udal Musika eskolako ikasleek beste eguberrietako kanta sorta bat abestu zuten: 'Din dan don' eta 'Gauko izar', besteak beste. Kontzertua ikustera joan ziren herritarrek gogotik gozatu zuten ikasleen emanaldiekin, eta txalo artean agurtu zituzten artista guztiak.



Hainbat instrumentu izan ziren protagonista asteazkenean, biolina horien artean.



Donostiatik 6 minututara bakarrik,  
A1-erako sarrera zuzenarekin

✓ Etxebizitzak **185.000 €-tik aurrera**, terrazekin eta Santa Barbararako bista inbidiagarriekin.

✓ Erabateko personalizazioarekin!

residencial  
**zabaleta** (berri)  
bizigunea

Kutxabank-en erakundearen finantzaketarekin **kutxabank**

www.zabaletaberri.es

943 36 89 42